



GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE MÉDICOS DE GIPUZKOA



Matxoak 1

PRENTSA ADIERAZPENA

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoak bere haserrea azaldu nahi du Gipuzkoan eta Euskadin martxan den txertatze prozesuarekin, batik bat, medikuntza pribatuan ari diren sendagileen lehentasun faltari begira.

Hilabeteak dira Euskadin txertatzeak hasi zirenetik eta gaur egun, oraindik ere, medikuntza pribatuan lanean ari diren sendagile gehienak txertatu gabe daude. Eta ez hori bakarrik: ez dakite noiz izango den euren txanda ez eta nola egingo den euren txertatzea.

Nahiz eta txertaketari buruzko instrukzioak ez duen desberdintasunik egiten eremu publikoan edo pribatuan ari diren sendagileen artean, Euskadin errealitatea bestelakoa da: Osakidetzan lanean diharduten sendagile gehienek bi dosiak jaso dituzte; aldiz, pribatuan ari diren sendagile gehienek ez dute dosi bat bera ere jaso eta ez dakite noiz inunizatzeko zaien.

Sendagileen Elkargoak diskriminazio hau guztiz onartezina dela uste du. Pribatuan ari diren profesionalak modu berean pairatzen dute birusarekiko esposizioa. Kontagiatzeko arriskuaz lan egiten dute eta baita gaixoak kontagiatzekoarekin ere. Sendagile hauek txertatzea osasun publiko kontua da.

Hilabete erantzunen zain

Gaur hilabete bete da Euskadiko Sendagileen Elkargoek bilera egin zutenetik Osasun Sailburu den Gotzone Sagarduirekin, txertaketa planaren inguruan hitz egiteko eta, batik bat, pribatuan ari ziren sendagileen txertaketa aurreikusi ez izanak sortzen zigun kezka adierazteko. Kezka hau urtarrilean zehar ere adierazi zitzaion Osasun Sailari behin baino gehiagotan.

Bilera hartan, hiru Elkargoek edozerretan laguntzeko prest azaldu diren pribatuan ari diren lankideen txertaketa azkartzeko: zoritxarrez, txertoa nahi zutenen erregistroa egiteko ekimena bakarrik onartu ziguten eta azkar asko jarri genuen martxan. Erregistroa Osasun Sailean dago otsailaren 19tik.

Bilera hartatik hilabete pasa denean, ez dugu askorik aurreratu. Erregistro horretan izena eman duten sendagileen txertatzea noiz hasiko den ez dakigu, galdetu badugu ere. Eta testuinguru ezjakin honetan, gainera, egunero kolektibo berrien txertaketa abiatzen dela irakurtzen dugu, harrিতuta.



GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE MÉDICOS DE GIPUZKOA



Egoera hau izanik, Osasun Sailari erantzunak emateko eskatzen diogu, zehazki, gure erregistroan dauden elkargokideen txertaketaren inguruko data zehatza ematea eta txertatze prozesuan kolektibo honek merezi duen lekua ematea.

Berriz ere azpimarratu nahi dugu bizi dugun osasun krisi honetan sendagileen kolektiboa txertatzea ezinbestekoa dela, euren segurtasunerako, gaixoen segurtasunerako eta osasun publikoa bermatzeko.